

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Eskoriatza Kirol
Elkarteak
batzar orokorra /8**

NI KAZETARI

**Joserra Eskibel
abenturazalea /9**

LEINTZ GATZAGA

**Udalekuen
balorazioa /10**



**Andramaixak 2002
DENA GERTU DAGO!**

GUARDIAKOFARMAZIA

UZTAILAREN 16TIK ABUZTUAREN 16RA
FRAILE, J. Herriko plaza, 10... 943 79 21 99
ABUZTUAREN 16TIK IRAILAREN 16RA
ITURRALDE, Mitarte 18... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

| | |
|-----------------------|--------------|
| Almen | 943 71 49 07 |
| ARETXAGAZETA | 943 79 86 21 |
| Faxa | 943 77 18 54 |
| Basotox | 943 77 09 81 |
| Euskaltegia | 943 79 21 68 |
| Gizarte laguntzailea | 943 71 18 62 |
| Hezibide elkarte | 934 79 31 32 |
| Industrialdea | 943 79 62 80 |
| Institutua | 943 79 79 00 |
| Kirol etxea | 943 71 26 28 |
| Kultura etxea | 943 71 10 27 |
| Kurtzebarri Eskola | 943 79 00 49 |
| Kurtzebarri BHI | 943 79 57 40 |
| Liburutegia | 943 71 18 62 |
| Loramendi EE | 943 77 09 70 |
| Ludoteka | 943 79 05 81 |
| Mankomunitatea | 943 79 30 90 |
| Murruxiko ME | 943 79 93 74 |
| Musika Eskola | 943 79 36 50 |
| Osasun etxea | 943 79 74 58 |
| Otalora | 943 71 24 06 |
| Parrokia (bulegoa) | 943 79 18 42 |
| Pausoka Haur Eskola | 943 77 03 77 |
| Postetxea | 943 79 28 31 |
| Santa Rita Ikastetxea | 943 79 17 00 |
| Saretxo | 943 71 26 56 |
| Taxi geltokia | 943 79 22 33 |
| Udal Bulegoak | 943 71 18 62 |
| Udaltzaingoa | 943 71 18 63 |
| Urats Gain | 943 79 99 11 |

UDALZAIINGOA

| | |
|----------|--------------|
| Arrasate | 943 79 14 39 |
|----------|--------------|

LARRIALDIK

| | |
|-----------------------|--------------|
| SOS Deiak | 112 |
| Eskualde Ospitalea | 943 03 53 00 |
| Ertzaintza | 943 79 71 99 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdia | 943 46 11 11 |
| Suhiltzaileak (Onati) | 943 78 28 00 |

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Oharra: Hiletetan 19:00etan izango dira mezak parrokian.

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: AOZARATZA
Zapatuetan: 19:00

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO/GALARTZA/IZURIETA
Ez da mezarik esango

OHARRAK

SANTIAGO JAIK GOROETAN
Urtero moduan, Santixauak ospatuko dituzte Goroeta auzoan. Bihar, eguena, kanpai errepika, Meza Nagusia eta luncha; etzi, egubakoitzean, arratsaldean, mus eta briska txapelketak eta umeendako jokoa. Azkenik, ilunkeran, auzo afaria eta dantzaldia izango dute goroetarrek.

SAN INAZIO FESTA MURUALDE ELKARTEAN

Hilaren 30ean eta 31n San Inazio festak ospatuko dituzte Murualdeko bazkideek. Martitzenean, bertso afaria egingo dute, eta Maialen Lujanbio eta Mañukorta arituko dira bertsoan; gero, musika egongo da, gura duenak dantza egin dezan. Eguaztenean, bestalde, eguerdian, Meza Nagusiaren ondoren, XVI. Bolo Txapelketa jokatu dute elkartekok.

OPORRETAN GOAZ!

Esku artean duzun ARETXAGAZETA opor aurreko alea duzu. Dena dela, Andramaixetan herrian izango gara argazkiak ateratzen. Argazkiok irailen 6an kaleratuko dugun alean ikusiko dituzue. Ordura arte, ondo pasatu Andramaixak eta oporrak!

LORAMENDIREN AGENDA

SAN MIGELETARAKO DANTZA IKASTEKO ENTSEGUAK IRAILEAN HASIKO DIRA
Loramendi euskal elkar- teak irailerako, San Migel festetako *Beinke-Loramendi* dantza ikasteko entseguak antolatu ditu. Entseguak irailen egingo dira, ostiralero 19:30ean. Jendearen partehartzea garrantzitsua da, beraz anima zaitetzte! Informazio gehiago beti moduan 943 77 09 70 telefonoan.

ORAINDELA 8 URTE ARETXABALETAN

Urkuluko urari fluorra botatzea erabaki zuten

Duela zortzi urte, Udalak, Eusko Jaurlaritzako lege bati jarraituz, Urkuluko urari fluorra botatzea erabaki zuen. Kontua da erabaki zutela 30.000 lagun baino gehiagoren artean banatutako urak fluorra eraman behar zuela. Probak egin ostean, 1995ean hasi ziren fluorra urarekin nahastean.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Infarnuko txerrena"

Deabrua.
Txerren soilik ere bai
-Infarnuko txerrena baiño okerraua da gure mutiko ori.
-Infarnuko txerrena baiño beltzaua.



ZORIONAGURRAK

| | | | | |
|--|--|---|---|--|
|  ESKORIATZA Asier Arzaburu 24an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik. |  ESKORIATZA Aihan Urrutia 24an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik. |  ARETXABALETA Andoni Miguel 27an. Zorionak eta muxu handi bat, loba guztien partetik. |  ARETXABALETA Fran Miguel 27an. Zorionak eta muxu handi bat, loba guztien partetik. |  ARETXABALETA Nekane Barbero 29an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik. |
|  ARETXABALETA Elena Fernández Abuztuaren 6an, 10 urte. Zorionak, etxeko guztien partetik. |  ARETXABALETA Manolo Zubillaga 10ean. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik. |  ARETXABALETA Nahia Martín 20an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik. |  ARETXABALETA Ane Martín 20an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik. |  ARETXABALETA Edorta Mendieta 27an. Zorionak, AITZOLAKO ARETXAGAZETAko ttordekideen partetik. |

LIBURUTEGIKOTXOKOA

'Liburutegiko oporrak'

Uztailaren 30ean, martitzenean, Udal Liburutegiak atekak itxili ditu. Hori dela eta, honako oporrak hauek eman gura izan ditu liburutegiko arduradunak:
-Uztailaren 30etik abuztuaren 26ra bitartean egongo da itxita Udal Liburutegia.
-Oporretan irakurtzeko zaleentzat, bultzatzeko asmoz, meza leguen gaineko arauak aldatuak dituzte: batetik, ohi baino liburu gehiago hartu ahal izango dituzte, lau, guztira; bestetik, liburu buelatzeko epea luzatu egingo dute. Hala, liburua aste honetan hartuz gero, abuztuaren 30ean arte ez duzue itzuli beharko.
-Eta gogoratu liburua aurrerantzeko orduan *Biblioporrak* izan behar duzue, gida eskura duzuela.



JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 • 943 77 17 19
Basabe, 2 • 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina



Matikua jatetxea

Azatza auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68

Jou Diaz



Harakina



Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Lezama
BIDEO KLUBA

Zure gustoko zinemak

Santa Kurtz 24
ARETXABALETA
943 79 33 95

ATREBENTZIAEZPADA/ Andramaixetarako herrire bueltetako asmorik badauketzu? Zergaittik?



IGNACIO LÓPEZ DE URALDE
Langillie

JULIA CÁCERES
Langillie

URKO DOMINGO
Langillie

PURI ALDAI
Langillie

AGUSTÍN HORRILLO
Langillie

BEGOÑA SOLA
Langillie

Ez, Andramaixen ostien etorriko naz, hillaren 18xen. Penie emuten dust, aspaldixen hamen pasau izen dittut eta jaixek, baiñe holaxe tokau jat oporrek eta kanpuen egongo naz.

Ez, ointxe dauket oporretan joateko aukerie eta ez naz geratuko herrixen. Gustau, gustauko litxakit Andramaixetan egotie, baiñe Extremaduratik ez naz horretarako bueltauko.

Ez, Andramaixetan juengo naz oporretan-eta. Gaiñera, ez dust bat be penarik emuten. Oin artien beti egon izen naz, baiñe geruago eta txarragure doiezela uste dot; aurten kanpora noie.

Ez, Andramaixetan juengo naz oporretan eta ez naz bueltauko. Pena haundixekin juengo naz, baiñe gizonak lelengo hamabostaldixen lan egin biher dau eta gero ez gare geratuko.

Ondiokan ez dakit seguru. Jaixetan hamen egotie gustetan jat eta Andramaixa gehixenetan hamen egon izen naz, baiñe aurten ez dakit, lanaren arabera izen-goda.

Ez, oporretan juengo naz eta ez naz bueltauko. Egon izen naz beste urte batzuetan, baiñe aurten ez naz bueltauko. Ez noie oso urrin oporretan, Mirandara, baiñe ez naz etorriko.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK BIDEKO ZULOAK Askotan bota diegu txistu handia autoei eta auto gidariei. Askar ibiltzen direla, autoa behar ez den lekuan uzten dutela... Egia esan, gehienetan ez zaigu arrazoirik falta izan. Edozelan ere, gaurkoan, auto gidarien kexuei erreparatu eta txistu bat botako diegu egoera tamalgarrian dauden errepediei. Irudiotan duzuen, adibidez, kontuan hartzeko zuloa da. /A. L

ETABARRUAN...

- | | | |
|--|--|---|
| ELKARRIZKETA / 4 | ASTEKO GAIA / 5 | KIROLAK / 6 |
| Inazio Galdos misiolaria | Andramaixetako egitaraua | Trialsin erakustaldia |
| Inazio Galdos misiolaria da eta Indiako Gujerat lurraldean bizi da. Gure artean egon da oporretan. | Dagoeneko kalean dago jai egitaraua, herritarrek, oporretara joan baino lehen, zer egongo den jakin dezaten. | Trialsin erakustaldia egingo dute Andramaixetan Ros anaiek eta Markel Uriarte aretxabaletarrak. |

ASTEKODATUA

52.940

EURO, AURTENGO ANDRAMAIXETAKO AURREKONTUA

Edo 8.800.000 pezeta inguru. Horako zati handiena pilota partiduak ordaintzeko erabiliko dute, 6.150 euro, hain zuzen, eta beste zati bat Los Pérez de Nochistlán mariachiei emateko, 4.532 euro.

BESTEKEESANA

“ Duela hiru urte udako kanpaina egiten dugu, batez ere haur eta gazteei begira. Euskara Biziberritzeko Planaren barnean ikusten dugu normalizazio bidean euskara kaleratzeko orduan nahiko arazo handia dagoela, ez dutela erabiltzen. Zenbait esparru, beraz, irabazi nahi ditugu. Plan honek, nire ustez, aro berri bat suposatzen du; fisikoki leku itxiak diren euskara enpresara, kalera, kirolera, aisialdira ateratzea. Izan ere, aurten kanpainaren helburu den adin taldeko pertsonak, orokorrean, lagunekin ateratzen hasiak dira, uda garai aproposa da jende berria ezagutzeko, eta ezagutza horretan zure hizkuntza euskara baldin bada, aurrerantzean harreman hori ere berdin mantenduko dela bermatzen duzu.

LOREA LEANIZBARRUTIA
'El Pais' / 02-07-15

HERRITARRENBERBAK/ Resu Abasolo



Infoaberatsak eta infopobreak

X XI. mendeak zer ekarriko, eta hor non beste aberats eta pobre klase batzuk: infoaberatsak, sareak eta Internet menperatzen dituztenak, informazio guztiaren jabe direnak eta infopobreak, orain arte garatutako estruktura eta baliabideekin konformatzen direnak.

Infoaberatsek maneiatzen duten informazioa Internetek beti eskura jartzea lortu du, edozein ordutan eta lekutan eta, gainera, ezin ahaztu informazio ugariena duenak boterea izateko aukera ere baduela, aurrera egiteko funtsezkoa baita.

Alfabetizazio teknologikoei, orain arte interes ideologikoei erantzun die eta ikusteko gaude atzean geratzen direnak jasan beharreko ondorioak.

Infoteknologiak urrunekoa urreratu egiten digu, gauzak errazago lortzeko aukera eman, idaztera bultzatu eta edozer, ikusgai bihurtu. Erabilera gure

nahi eta beharretara egokitzea baino ez daukagu. Hori bai, zertarako behar dugun garbi eduki behar dugu.

Egia da informazioaren gizartean desberdintasunak leundu ordez areagotu egin direla. Batzuk Eroskiko karroa saguari klik eginda betetzen duten bitartean, hirugarren munduko ezinezkoa gertatzen zaie Internet bidez xiringak eta botikak jasotzea.

Baina ez etsi, asko izan dira herri honetan euren burua gai ikusi ez zutenak euskara ikasteko edo txofer egiteko eta denborak arrazoia eman die: ez dira gai izan.

Edozein adin da egokia infoteknologiaren alfabetatzeko. Une honetan edozeinen esku daude aukerak, dohainik gainera: “Konekta zaitez”, Hobetuz...

Bestalde guk bizi dugun gizartean infoaberatsa edo infopobrea izan norberaren esku ere badago. Ez duzue horrela ikusten?

“Infoteknologiaren alfabetatu beharra ezinbestekoa da”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale



- ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila
 - Gipuzkoako Foru Aldundia
 - Aretxabaletako Udala
 - Eskoriatzako Udala
 - Leintz Gatzagako Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Joan eta etorri

Udan oporrak hartu eta herritik kanpora joaten gara asko eta asko. Baina opor egun hauetan kanpotik gurea etortzen direnak ere badira. Misiolariak esaterako. Hainbat misiolari daude gure artean: **Arantxa Urrutia Etxaluze** baserrikoa, **Juli Aiastui Ojala Zelai** baserrikoa, **Inazio Galdos** eta **Juan Jose Olabe**. Egia esan, Inazio Galdos gure artean egon da, baina dagoeneko Indiara bueltatu da. Hauxe gain, baliteke beste norbait ere gure artean egotea.

Misiolariekin batera jaiak ere udako parte dira. Koruetan Santiagok ospatuko dituzte. Musika, jan-edana eta karta jokoak, behintzat, ez dira faltako auzoan. Muru Alde elkarteak, berriz, San Inazioak ospatuko dituzte hileko azken egunean. Aurreko egunean bertso-afaria egingo dute, **Maialen Lujanbio** eta **Mañukorta** bertsolariekin. Barrea, behintzat, eragingo dute bi bertsolariek, ziur nago.

Agurtu aurretik beste kontu bat. Antza denez, gaztetxea itxiko du Udalak. Hori ikusita gaztetxe-koek ekintza ugari antolatu dituzte hil bukaerarako. Martxa gura duenak gaztetxean aurkituko du datozen egunetan.

Nire partetik besterik ez. Ondo pasatu oporrak eta Andramaixetan ez hutsik egin!

ELKARRIZKETA

INAZIO GALDOS/MISIOLARIA

“Adivasien alde eta adivasiekin bizi izango naiz Indiako Gujerat lurraldean, hil arte”

MIRARI ALTUBE

Berrogeita hamaika urte daramatza Indian Inazio jesuitak. Azken urteotan Gujerat lurraldean bizi da, adivasiekin, gustura bizi ere. Hiru urtean behin etortzen da Aretxabaletara, eta egun batzuk egin ostean, gaur joan da.

Urte asko pasatu dira Aretxabaletatik joan zinela...

Bai, hogei urterekin alde egin nuen herritik eta, ordutik hona, berrogeita hamaika urte pasatu dira, San Inazio egunean beteko ditut, hain zuzen, 71 urte. Joan nintzenez hamabost urte egon nintzen etorri barik, orduan, betiko joaten ginen-eta... Geroztik, hiru urtean behin etortzen naiz.

Beti egon zara Indian...

Bai, baina ez beti Gujerat lurraldean. Hasieran, Indiako beste leku batzuetan egon nintzen: Bonbayn, Indiako hegoaldean... Himalaian ere bai, Teologia ikasten, eta gero, adivasiak ezagutu nituen. Oso pobreak zirela konturatu nintzen eta eurekin lan egitea erabaki nuen.

Lan handia egin duzu Indiako Gujerat lurraldean adivasi leinukoekin...

Bai; izan ere, oso behartsuak dira. Lehenengo Iraultza Berdea eroan genuen aurrera: urarendako potzuak egin, lurrak berdindu, nekazaritzarako lurrak prestatu... Gero, Iraultza Zuria etorri zen: adivasiei bufalak banatu genizkien esnea izan zezaten, eta bukatzeko, Iraultza Grisa etorri da, hezkuntzari dagokiona; izan ere, eskola barik ez dago garapenik. Baina hezkuntza elikadurarekin oso lotuta dago, eta hor ere lanean ari gara.

Iraultza edo proiektu horiek adivasien bizimodura aldaketa handia ekarri dute: batetik, errekurto gehiago izanda bizimodu hobe izan dezaketelako, eta, bestetik, pentsatzeko era aldatu ditelako. Nagi izatetik ekintzara



MIRARI ALTUBE

“Joan nintzenez hamabost urte egon nintzen etorri barik, orduan, betiko joaten ginen-eta...”

pasatu dira.

Aretxabaletatik ere bidali izan da dirua proiektu horiek aurrera eroateko...

Bai, halaxe da, eta adivasiek asko eskertu izan dute laguntza. Argi gera dadila, gainera, bidaltzen den diru guztia heltzen dela gure eskuetara, eta guk ahal den erabilera onena ematen diogula.

“Pozgarria da adivasien artean gero eta mediku, abokatu eta irakasle gehiago egotea”

Kontuak argi izatea gustatzen zait niri, eta jasotako diruarekin egin den guztia ondo zehaztuta bidali izan dut beti bueltan. Eusko Jaurlaritzak ere hainbat proiektutan lagundu digu, eta orain ere 40 milioiko beste baten laguntzeko eskatu diot. Astelehenean bertan izan nuen bilera Nekazaritza arloko Jose Mari

Zeberiorekin.

Gujerat lurraldean heriotza asko izan dira aurtan, ez?

Bai, izugarria izan da. Hinduen eta mahometarren artean izugarritzko borroak izan dira eta jende asko hil da, bai alde batekoa bai bestekoa. Orain arte, zortea izan dugu, Mahatma Gandhi profeta handiaren jaioterria izanik, Gujerat prestigio handiko lurraldea da-eta, baina benetan istilu larriak izan dira.

Gero eta misiolari gutxiago egongo zarete, ez?

Bai, Gujeraten hamabi bat misiolari euskaldun egongo gara, baina ni nagoen lekuan bakarrena naiz; gainerakoak Indiakoak dira, bai mojak, bai gure nagusiak. Beste bi aretxabaletar ere egon ziren: Alberto Iñurrategik 36 urte pasatu zituen eta Romualdo Aki zu orain lau urte hil zen. Indiako gobernuak, gainera, ez du kanpotar gehiagorik gura eta aspaldi itxi zieten, 1963. urtean, kanpoko misiolariei ateak.

Asko aldatu da berrogeita hamar urtean India?

Izugarri. Lehen, 48 urteko bizi itzaropena zuten, orain, 62 urtekoa dute. Pozgarria da, gainera, adivasien artean ere gero eta mediku, erizain, ingeniari, abokatu eta irakasle gehiago daudela ikustea.

Eta Aretxabaleta asko aldatu da?

Bai, baina ez berrogeita hamar urtean, azken hiru urteetan ere asko aldatu dela ikusi dut. Etxe asko egin dituzte, dotoreak, gainera, eta herria oso ondo zainduta dagoela uste dut. Kanpotik ere jende asko etorri da Euskal Herrira, hirietara, batez ere, Hego Ameriketatik eta Maroko aldetik esango nuke nik.

Indian jarraitzeko asmorik badaukazu?

Bai, bai, adivasien alde lan egin eta adivasiekin bizi, hil arte. Zorionez, oso osasun ona daukat eta sasoi nago; hortaz, hantxe jarraituko dut.

Zubia
oinetakoak

beherapenak!

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE

ANA'S
jantxidenda

Iparragirre 4.
Aretxabaleta

L. GONZALEZ
PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581
943 79 65 46

IRIARTE

Umeen
denda
eta
lentzeria



Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

JAIK/ Alboka eta Los Pérez de Nochistlán, aurtengo musika taldeen artean, eta profesionalen pilota partiduak

Dagoeneko esku artean dute herritarrek aurtengo Andramaixetako jai egitaraua

MIRARI ALTUBE

Hogei egun inguru falta dira Andramaixetarako, baina egitaraua dagoeneko kalean dago. Udaleko Kultura Saila eta Jai batzordea gustu eta adin guztietara egokitutako jaiak antolatzen saiatu dira. Ea herritarrek jaietarako bueltatzeko arrazoia topatzen duten.

Herritarrei, oporretan joan aurretik, jaietan izango dutenaren berri eman gura izan die Udaleko Kultura Sailak. Egitaraua iazkoaren antzekoa da, baina badago berrietasunen bat edo beste.

ABUZTUAREN 14A ETA 15A

Aurtengo Andramaixetako egitarauak ez dakar aldaketa handirik. Betiko ekintzak antolatuta dituzte antolatzaileek, eta kalitatean hobetu gura izan dute.

Andramaixetako bezperan, abuztuaren 14an, 23. Mus Txapelketa jokatu dute herriko plazan. Izugarritzko arrakasta izan du azken urteotan Mus Txapelketak, eta inguruko herrietatik ere etortzen dira parte hartzera. 19:00etan, iaz baino goizago, Ikurrinari agurra egingo diote, eta, horren ondoren, txupinazoa botako du alkateak. Gauean, XVII. Bolo Txapelketa jokatu dute, baina dantzan egitea gurago, duenak Etxabe anaiak izango ditu Mitarte kalean.

Andramaixa egunean, abuztuaren 15ean, Udalbatza meza nagusia entzutera joango da; gero,



Giro polita sortzen dute koadrilek Andramaixetako hirugarren egunean.

bandaren kontzertua entzuteko aukera izango dute herritarrek. Aurten, Deikaztelutik etorriko da banda. Arratsaldean, herriko pilotarien partiduak izango dira Iturrigorri; 19:00etan, Alkora perkusio talde ospetsuak ume eta nagusiak animatuko ditu. Gauean, Alboka musika taldeak emeraldia egingo du herriko plazan.

Alboka taldea 1994. urtean sortu zuten eta gaur egun lau musikari euskaldunek eta Alan Griffin irlandarrak osatzen dute. Folk musika egiten du eta oso talde interesgarria da; dagoeneko hiru disko ditu kalean.

ABUZTUAREN 16A ETA 17A

Andramaixetako bigarren egu-

nari txirrindulari lasterketak emango dio hasiera. 09:30ean hasi eta 12:30ak inguruan bukatuko dute txirrindulariek proba, iberrari hainbat buelta eman eta gero. Trialsin erakusketarekin jarraituko du goizak: Lizarrako Ros anaiak eta Markel Uriarte aretxabaletarrak bizikletarekin egiten dakitena erakutsiko dute; arratsaldean, sokamuturrak hartuko du protagonismoa, eta 20:30ak inguruan, EHEP Plataformak manifestazioa egingo du; gauean, pilota partiduak izango dira, eta aurreko urteotan ez bezala, aurten, pilotari profesionalak izango ditugu herrian. Eguna bukatzeko, bi eratako musika: txosnetan Zea Mays eta herriko plazan Arantxa eta Pantxo.

Andramaixetako hirugarrena Koadrilen Eguna izango da. Koadrilek izango dute eguna girotzeko ardura. Sokamuturrak gain, ekintza ugari izango dira egunean. Hankagorri taldeak, esaterako, *Trufaldinoren trufak* antzez-lana eskainiko die ume eta gaztetxoei; gero, herri bazkaria egingo dute herriko plazan. Azken urteotan bezala, paella erraldoia eta *Te de los puertos* egongo da, gura beste eta doan; arratsaldean, eguna girotu duten koadrila onenei sariak emango dizkiete antolatzaileek. Sari bikainak egingo dira, gainera.

Eguna eta, bide batez, aurtengo jaiak bukatzeko, Mexikoko Los Pérez de Nochistlán mariachi taldea izango da, lehenengo kalean eta gero herriko plazan.

LABUR

Santa Ana eta San Joakinen irudiak berriz Goroetan

Goroetako elizan daude berriro ere Santa Ana eta San Joakinen irudiak. Donostiako Taula enpresak eroan zituen zaharberritzeko, eta benetan itxura polita hartu dute biek. San Joakinen irudiaren inguruan zalantzatxo ere badago batzuk San Jose dela esaten baitute.

Hil honen bukaeran itxi egingo dute Gaztetxea

Aretxabaletako Gaztetxeak jakinarazi duenez hil honen bukaeran itxi egingo du udalak Gaztetxea. Hori dela eta, hainbat kontzertu eta ekitaldi antolatu dituzte datozen egunetarako. Eguazten honetan hasi eta hurrengo eguazten bitartean egunero egongo dira djak kuartelean.

Galartzako elizako zaharberritze lanak astean bukatu dira

Maiatzean hasi zituzten Galartzako Santa Luzia elizako zaharberritze lanak eta astean bukatu dituzte. Barruko aldea konpondu eta txukundu dute tarte horretan, eta elizpea ere burdinazko ate bi jarrita itxi egin dute. Dotore geratu da eliza txikia.

LEIBAR arrandegia



Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta

PAGALDAI

*Opari denda
Burrindegia*

Durana, 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erlojudenda

Bitxien diseinua

Bitxien konponketa

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57
ARETXABALETA



- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28



Taberna Berri jatetxea

Durana, 26
ARETXABALETA
Tel.943 79 20 67

TRIALSINA

Lizarrako Ros anaiak izango dira Andramaixetan Markel Uriarterekin

Benito Ros elite-20 mailako Espainiako txapelduna da eta munduko onenen artean dago

MIRARI ALTUBE


Trialsin erakustaldi bikaina antolatu dute antolatzaileek aurtengo Andramaixetarako: batetik, Lizarrako Ros anaiak etorriko dira. Benito Ros, anai nagusia, elite-20 mailako Espainiako txapelduna da; eta bestetik, Markel Uriarte aretxabaletarra izango dugu.

Iaz ikusi genuen trialsin erakustaldia lehenengo aldiz Andramaixetan. Ikusmin handia piztu zuen orduan, eta aurtengoa, aretxabaletar bat ere izango da: Markel Uriarte larrinoarra.

BIZIKLETA GAINEAN SALTOKA

Andramaixetako bigarren egunean, abuztuaren 16an, trialsin erakustaldia egingo dute: batetik, Lizarrako Ros anaiak etorriko dira. Benito Ros, anai nagusia, Espainiako elite-20 mailako txirrindulari onena da, eta azkeneko txapelketa guztiak irabazi ditu.

Bestetik, Markel Uriarte aretxabaletarra ikusiko dugu lanean. Markel Gipuzkoako alebin mailako txapelduna da, eta buka-



Iaz ere ikusmin handia piztu zuen herritarrengan trialsin erakustaldiak.

tu berri den Trialsineko Iparraldeko Txapelketan txapeldunorde izan da. Aretxabaletarrarekin batera Ekaitz Romero oñatiarra eta Jon Areitio hondarribiarra ere ariko dira.

Pare bat orduko ikuskizuna eskainiko dute guztien artean; harri artean, egurren gainean, eskailetan gora eta autoen gainetik bizikleta gainean salto egingo ditugu.

PILOTA

Pilotari profesionalen partidua izango dira Andramaixetako bigarren egunean

Aurreko urteotan, herriko pilotariak jokatu izan dute Andramaixetan, baina aurtengoa, pilotari profesionalak izango ditugu, abuztuaren 16an, 22:30ean, Iturrigorri frontoian. Lehenengo partidua Medina mexikarra eta Saralegi izango dira aurrez aurre lau t'erdian. Horren ondoren, eskuz binakako partidua jokatu dute Kokak eta Errastik Berasaluze VIII.aren eta Zezaren aurka.

Herriko pilotariak ere izango dute euren abilezia erakusteko aukera, abuztuaren 15ean, 18:00etan, Iturrigorri frontoian bertan.

TXIRRINDULARITZA

64. Leintz Balarari Itzulia egingo dute 23 urte azpiko eta elite mailako txirrindulariek

Abuztuaren 16an, Andramaixetako bigarren egunean, 64. Leintz Balarari Itzulia jokatu da. Guztira, 120 kilometro egin behar dituzte 23 urte azpiko eta elite mailako txirrindulariek. Durana kalean hasiko da proba. Lehenengo biran Arlabango mendatea igo eta Legutiora joango dira, eta gero, Kurtzetako mendateki Aramaiora jaitsiko dira. Bukatzeko, berriz, Gatzagako mendatea igo behar dute eta helmuga irteera puntuan bertan egongo da 12:30ak inguruan bukatuko dutela uste dute antolatzaileek.

KIROL ETXEA

Aretxabaletako kirol etxea itxita egongo da uztaillaren 30etik irailaren 2ra bitartean

Aretxabaletako kirol etxea itxita egongo da abuztuaren 30etik irailaren 2ra bitartean; hain justu ere, uztaillaren 30etik irailaren 2ra bitartean egongo da itxita. Hala ere, urtero moduan, herriko igerilekua itxita dagoen bitartean bazkideak Arrasateko kanpoko igerilekura joan ahal izango dira. Aretxabaletako kirol etxeko txartelarekin. Irailean, bestalde, ohiko ordutegia izango du.

OSASUN GIDA



ARETXABALETA

DENTISTAK:

■ IMANOL ARRAZOLA OTXOA

Mediku-dentista
Otalora, 18-1D. Tel: 943 79 93 55

■ ANGEL BENGUA SAN MIGUEL

Mediku estomatologoa
Durana, 14-1. Tel: 943 79 05 57

MASAJEAK:

■ FLOREN ELORTONDO

Masajeak eta osteopatia
Basabe industrialdea, Pab D z/g
Tel: 629 77 85 84 / 943 79 46 20

■ LASAI MASAJEAK

Mirian Manteca masajista
Osteopatia kraneala: estrukturala eta funtzionala, lotura muskularrak
Aurrez lekua eskatu: 943 77 04 34

■ ZAINDUZ OSASUN ETA FITNESS ZENTRUA

Kirol eta osasun zerbitzuak:
banakako fitness programak, masajeak...
Hilargi plaza, 6. Tel: 658 75 80 12

■ EKIN FISIOTERAPIA ZENTRUA

Errehabilitazioa, masaje terapeutikoa, akupuntura, osteopatia.
Belorrieta, 6-7. Tel: 943 79 95 64

■ PSIKOPEDAGOGOAK:

■ LEBER KABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA

Hezkuntza arazoetan diagnostikoa eta tratamendua
Basabe industrialdea, C3-3.
Tel: 943 79 56 98

■ PARAFARMAZIAK:

■ FARMA BIZI PARAFARMAZIA

Maitane Urrutia Yurrebaso farmazilaria
Loramendi, 8. Tel: 943 77 18 18

■ YOGA:

■ SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA

Yoga, bioenergetika eta psikoterapia
Lezama komertzial zentrua
eta Santa Kurtz, 24. Tel: 616 965 795

ESKORATZA

FARMAZIA:

■ BOTIKA LDA. M. D. AGUIRRE PAGALDAY

Homeopatia, dermofarmazia, formula magistralak
Eduardo Gorosarri plaza. Tel: 943 71 48 28

DENTISTAK:

■ ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

Hortz klinika
Eduardo Gorosarri, 3-1. Esk.
Tel: 943 71 47 36

ORTODONTZIAK:

■ AGUSTIN GOROSARRI BARBARIAS

Protesiko dentala: ortodontzia
Arana, 20-2.esk. Tel: 943 71 44 36

ERRETRATUZHARRA

Garai bateko ezkontza erretratua

Alboko erretratu zaharrak berrogeita hamar urtetik gora ditu. Argazkiaren jabeak etxean zeukan, armairu zaharren baten gordeta. Erretratuan azaltzen diren lagun askoren izenak badakizki gure informatzaileak, baina gaurkoan ez dugu izenik argitaratuko. Oraingoan, argazkiak garai bateko ezkontzak zelakoak ziren azaltzeko balio izango digu.

Udaberria edo uda gerturatzen diren neurrian, bikote asko ezkontzen dira. Jantzi zuria, ehunka gonbidatu, eztei bidaiak exotikoa... Bikote gehienek gaur egungo ohiturak jarraitzen dituzte. Antzinako ezkontzek, ordea, ez zuten gaurkoen antzik.

Alboko erretratuan beheko ilararen erdialdean azaltzen den bikotea 1950eko hamarkadan ezkondu zen, Azatzako San Juan elizan. Eta argazkian ezkontzara joan ziren gonbidatu guzti guztiak ikus ditzakezue. Gehienak bikotearen familiarte-koak ziren eta gainerakoak, berriz, gertuko auzokideak. Orduan ez



zituzten, gaur moduan, koadrilakoak eta haien bikotekideak gonbidatzen.

Beste desberdintasun nabari bat ezkongaien jantziak ziren. Gizonezkoen kasuan aldaketa ez da horren nabaria. Orduan ere dotore jantzen ziren, trajearekin. Emakumezkoek, berriz, ez zuten soineko zuririk izaten, beltza

baizik. Ez dakigu gerora zuriz jantzeko ohitura nondik etorriko den, baina 1950eko hamarkadara arte, behintzat, emakumezkoa, mantelina eta guzti, beltzez jantzita joaten zen aldarera.

Bukatzeko, azken desberdintasuna eztei bidaiak izaten zen. Erretratuko bikotea Zaragozara joan zen, astebete-

rako. Beste batzuk Madril eta Bartzelona aukeratzen zituzten, zazpi bat egun igarotzeko. Edozelan ere, inor gutxi joaten zen, gaur moduan, Karibe aldera aste birako.

Argazkia: Puri Altube

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Etxebizitza gehiago 'Villa Geneveva'-n

Orain dela urte bi, Udalak etxebizitzak egiteko lurrak erosi zituen. Lur horietako batzuk *Villa Geneveva* etxe ingurukoak izan ziren. Horrela, 1999. urteko maiatzean, *Villa Geneveva* bota eta etxebizitzak egiteko erabakia hartu zuten udal osoko bilkuran. Horrez gainera, Araba ibilbidea Bainuetxearekin lotzen duen bidea egitea ere hitzartu zuten.



≈ 1999

Villa Geneveva 1999. urte amaieran bota zuten. Etxebizitza hura herriko zaharretarikoa zen.



2002

Orain 25. Zonaldea deitzen zaion horretan 32 etxebizitza egin dituzte. Itxura denez, ez daukate *Villa Geneveva*-ren antzik.

OPEL

OPEL VECTRA BERRIA
Gidatzea esperientzia zoragarri bihur dadin

GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA
943 71 20 03 Faxa: 943 77 16 20

Garaje Norten autoaren konponketa finantzatzen dizugu sei hilabetera, eta kostu gehigarri barik. **INFORMA ZAITEZ.**



Zebarri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Eguaztena / 2002ko uztailaren 24a / 90. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABALETAKO • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99



Eskoriatza Kirol Elkarteko garaipen handia izan da areto futboleko Ohorezko Ligatik Euskal Ligara igotzea.

ARTIBOIA

Kirol urte ezin hobea izan du Eskoriatza Kirol Elkartek

MIRARI ALTUBE

Joan den egunean egin zuen Eskoriatza Kirol Elkartek ohiko Batzar Orokorra. Aurten goa kirol denboraldi ezin hobea izan dela azpimarratu zuen Manolo Muñoz presidentek, garaipen handiak lortu dituzte-eta areto futbolak eta pilota taldeak.

Hamalau lagun egon ziren Eskoriatza KEk joan den egunean egin zuen Batzar Orokorrean. Diru kontuak baino gehiago, lortu dituzten garaipenak aipatu zituen Manolo Muñoz presidentek.

EGOITZA ALDAKETA IRAILEAN

Oso pozik agertu zen Manolo Muñoz presidentea aurreko denboraldiaren gainbegiratu egitekoan. Batetik, areto futboleko Ohorezko Ligan jokatzeko taldeak Euskal Ligara igotzea lortu du, eta, bestetik, pilota taldeak Debarroko Txapelketan garaipen garrantzitsuak izan ditu.

Datorren denboraldiari begira, arduradun eta entrenatzaile

aldaketaren bat edo beste izango da, baina garrantzizkorik ez: "Nire ardurapean dauden arduradun eta entrenatzaileak ahal den gutturen egon daitezten saiatzen naiz eta eurek eskatutako aldaketak izango dira", dio Manolo Muñozek.

Egoitza aldaketa egingo dute kirol elkartek; Intxaurretxuetara joango dira irailean

Bazkideen kuota igoko da datorren denboraldian; bi euroko igoera onartu zuten

zek. Batzordekideen artean, berriz, hainbat aldaketa daude. Lehendakaria, azken urteetan bezala, Manolo Muñoz izango da eta lehendakari ordea Jose Luis Rodríguez, diruzaina, berriz, Luis Miguel Lekuona.

Egoitza aldaketa ere egingo dute Kirol Elkartek. Olazar auzotik Intxaurretxuetara joango dira. Manoloren esanetan "Txikiagoa da egoitza, baina hobeto egokituta egongo da eta guri ere teknologia berrietara egokitzeko garaia heldu zaigu". Bazkideen kuota ere igoko da datorren denboraldian, bi euroko igoera onartu zuten egunean.

200 BAZKIDE DITUEN ELKARTEA

Berrehun bazkide ditu Eskoriatza Kirol Elkartek. Areto futbola, saskibaloia, pilota taldea eta mendi elkartea daude bere ardurapean. Manolo Muñoz da azken urteetako lehendakaria, 17 urte egin ditu lehendakari lanetan eta aurretik beste 8 arduradun gisa ibili zen, beraz, 25 urte daramatza batzordean. Oraingoan, gainera, hark jarraitu beharko du, ez da-eta ordezkorik azaldu.

RUBEN BEITIA / FILOLOGOA

"Bertako euskalkia aztertuko dugu"

Ruben Beitia eta Ainhoa Segura eskoriatzarrak, eta Mainer Irizar oñatiarra dira bertako euskalkiaren ikerketa zientifikoa egingo dutenak datozen hilabeteetan. Hirurak dira filologoak eta gogoarekin heldu diote lan berriari. Guk berba batzuk kendu dizkiogu Rubeni.

Eskoriatzako, Gatzagako eta Aretxabaletako udalek zuei eman dizue euskalkiaren ikerketa egiteko ardura.

Euskalkiaren azterketa nola egingo genukeen aurkeztu diegu udalei; fonetika, morfologia eta sintaxia aztertuko ditugu, batetik, eta lexikoa bestetik; esapideak, lagun arteko berbeta eta umeen berbeta ere jaso beharko ditugu, besteak beste, datozen 15 hilabeteetan.

Baina hori guztia aztertzeke, zer egingo duzue?

Hiru herrietan hainbat lekuko aukeratu, eta horiei grabazioak egitea izango da lanik handiena, erabiltzen duten euskalkiaren ezaugarriak ahalik eta zehatzen jasotzeko.



Erreferente izango diren lekukoak nolakoak izango dira?

Euskalki aberatsean mintzatzeko direnak izango dira. Bertan jaiotakoak, edadetuak eta, gehienbat, baserri girokoak direnak. Auzo eta elizate bakoitzeko lekuko bat, behintzat, hartuko dugu lan hori egiteko.

Zuen lana herritarrendako eredugarri izango da?

Gure lana euskalkiaren ezaugarriak jasotzean datza. Datu bilketa egin ondoren, erabilera ematea izango litzateke gure nahia, baina hori ez dago gure esku.

LABUR

Udaleko bitarteko itzultzaile lanpostua betetzeko 49 lagun aurkeztu dira

Aurkeztutako 49 lagunetatik, 46k izan dute lehiaketan parte hartzeko aukera. Lehenik, 4. hizkuntza eskakizuna ateratzeko frogara egin dute. Horren ondoren, itzulpen gintzako eta informatikako ezaugarriak erakusteko azterketak egin dituzte. Aste honetan erabakiko du epaimahaiak aurkeztutako lagunetatik nor eskuratuko duen bitarteko itzultzaile lanpostua. Datorren irailetik aurrera, egun erdiko kontratuarekin, itzultzaile berria izango du Udalak.

Eusko Jaurlaritzako sailburuak izan ziren Elgeako Parke Eolikoa ikusten

Joan den martitzenean, hilaren 16an, Eusko Jaurlaritzak Gasteizko Gobernu batzordea egin eta gero, eta Industria, Merkataritza eta Turismo sailburu Josu Jon Imazek gonbidatuta, Jaurlaritzaren osatzen duten sailburuek Elgeako parke eolikoa bisitatu zuten. Industria Sailetik adierazi digutenez, bisitaldiaren helburua haize-errotak dauden ingurua eta haien funtzionamendua hurbilgotik ikustea izan zen.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

| | |
|---------------------------|--------------|
| Udaletxea | 943 71 44 07 |
| Udal bulegoak | 943 71 45 32 |
| Udaltzaingoa | 943 71 44 07 |
| Euskaltegia | 943 79 21 68 |
| Kultura etxea | 943 71 46 88 |
| Gizarte laguntzailea | 943 71 31 36 |
| Kirol etxea | 943 71 53 28 |
| Liburutegia | 943 71 31 35 |
| Luis Eceiza | 943 71 53 56 |
| Jose Arana Almen Ikastola | 943 71 44 86 |
| Almen | 943 71 49 07 |
| Museo Eskola | 943 71 54 53 |
| Axtroki | 943 71 40 77 |
| HUHEZI | 943 71 41 57 |
| Osakidetza | 943 71 44 52 |
| Telesko | 943 71 49 17 |
| Taxiak | 943 71 40 59 |

BESTELAKOAK

| | |
|-------------------------------|--------------|
| Eskualde ospitalea (Arrasate) | 943 00 53 00 |
| Gurutze Gorria (Bergara) | 943 76 55 76 |
| Ertzaintza (Arrasate) | 943 79 71 99 |
| Suhiltzaileak (Oñati) | 943 79 28 00 |
| Renfe (Zumarraga) | 943 72 15 15 |
| RENFE (Gasteiz) | 945 23 20 30 |
| PESA (Arrasate) | 902 10 12 10 |
| Larrialdiak (Arrasate) | 943 77 10 43 |
| SOS Deiak | 112 |

OHARRAK

BIDEA MOZTU EGINGO DUTE
Uztailaren 23tik abuztuaren 6ra bitartean, San Juan kaleko 4. zenbakitik 9.era arteko bidea moztu egingo dute, tarte horretan lanak egin behar dituzte-eta. Bolibarrera doazen autoak Dorletatik joan beharko dira.

MANKOMUNITATEAREN OHARRA
Debagoieneko Mankomunitateak herritarrei jakinarazi gura die abuztuaren ez dutela traste zaharren bilketarik egingo herrian. Zabor-bilketa, aldiz, ohiko egunetan eta orduetan egingo dute.

AXTROKIRENAGENDA


ONDO PASATU OPORRAK
Geuk ere, herriko beste elkarteek eta herritar askok bezala, oporrak hartuko ditugu. Irailean, indarberrituta, lanerako prest itzuliko garelakoan, ondo pasatu oporrak!



NIKAZETARI/ Andoni Bengoak egindako elkarrizketa

JOSERRA ESKIBEL/ABENTURAZALEA

“Helburuak epe motzera finkatzen ditut”



Oporrak hartuta edo gehienok hartzekotan gauden honetan, Joserra Eskibelek Rafa Santestebanekin eta Eneka Guenetxearekin batera aspalditxo Patagonian bizi izandako esperientziaren berri emango digu. Poincenot orratza eta Fitz Roy igo zituzten. Cerro Torren, berriz, eguraldia batean aldatu zelako, gailurretik 200 metrora gelditu ziren.

Jende asko joaten da inguru hartara?
Patagonia leku turistikoa da eta jende ugari ibiltzen da, bai bisitan edo bai *treking*-a egiten. Eskalatzeko asmoarekin joandakoak ere ikusten dira, baina horiek gutxi batzuk baino ez dira.

Ezbeharririk ere izan zenuten, ezta?
Iritsi baino egun batzuk lehenago, Rubenek, nafarrak, istripua izan zuen. Ezaguna genuen, eta Rafa erreskate lana koordinatzen gertatu zen. Itzuli aurretik, berriz, beste kataluniar bat ere mendian desagertu zen; eguraldi txarrak tontorrean harrapatu zuen.

Zer deritzozu esprintean igotzen den eskalatzeko era berri horri?

Patagonian eta holako lekuetan eguraldi ona egun gutxian izaten da. Horrelako lekuetan aproposena eta segurua da.

Irteeretako erakustaldirik, hau da, diapositiba emanaldirik edo berbaldirik eskaintzen duzue?

Iritsi berritan irriti eta egunkariren batek ematen digu lan apur bat. Bestela, urtean barrena dozena erdi diapositiba emanaldi egiten ditugu; baina beste munduko konturik ez.

Zein beste helburu duzu aurtengo?
Helburuak epe motzera dira. Asteburuak, uda... Ideiarik ez da falta, baina zeinek daki non izango garen hemendik urtebetera.

Noiztik zabilzate eskalatzen?
Lehenengo aldiz, gaztetxotan, Fermin Lezetaekin joan ginen Atxartera eskalatzera. Horren ondoren, unibertsitatean ezagutu nuen jendearekin jarraitu nuen, eta geroz-

tik, hor gabiltza!

Eskoriatzan eta inguruko herrietan bada go zaletasunik?

Debagoienean zaletasun handia dago. Arrasateko rokodromo berria oso aproposa da, eta bultzada handia eman dio kirol horri.

Inguru hauetan eskalatzeko leku aproposik badago?

Kirol eskalada deritzona egiteko leku ugari ditugu: Araotz, Egino, Atxarte, Aauri, eta abar.

Zein eskalada mota duzu gustuko?

Eskalada mota guztiak atsegin ditut, baina bat aukeratzekotan, material gutxi duten pareta luzeekin geldituko nintzaket.

Eskalada luzeetan zelan moldatzen zarete jan, lo eta beste egiteko?

Patagonian eta holako lekuetan ez gara lo egitera geratzen. Eguraldi oneko uneak ahalik eta ondoan aprobetxatu behar dira, eta gauetz ere eskalatzen jarraitzen dugu. Gainerako paretetan hamakak igotzen ditugu hormara, eta hantxe egiten dugu bizimodua, tontorrera iritsi arte.

Prestaketa berezirik egiten duzu?

Eskalatu, gimnasio apur bat eta korrika.

Zer da garrantzitsua ondo eskalatu ahal izateko?

Gogoia.

Beste kirolrik egiten duzu?

Bizikleta, futbito... atsegin ditut, baina ez daukat denerako astirik.

Zein zaletasun daukazu kirolaz gain?

Kanpoan afaldu, parranda egin eta hurrengo egunean zinemara joatea.

LABUR

Irailaren 2an ospatuko duten San Juan kaleko jaia prestatzen ari dira auzotarrak

Datorren irailaren 2an ospatuko duten San Juan kaleko jaiaren parte hartzeko, antolatzaileek baldintza bakarra jarri dute: auzoan jaiotakoa izatea edo auzoan bizi izatea. San Juan kaleko jaia bi urtean behin egiten dute, eta aurtengoa bosgarren aldian izango da. Parte hartu gura duten


auzotarrek Euskadiko Kutxan izena eman eta horretarako zabaldu den kontu korrontean 18 euro sartu beharko dituzte. Irailaren 2an, trikitalarien eta txistularien alboradarekin ekingo diete egunari. Meza Nagusia ondoren eta gero, herri bazkaria -dantzaldi eta gutxi- izango dute.

Ibarraundi baserriko lanak, behar bezala joanez gero, bi urtetan amaituko dira

Maiatzaren hasieran ekin ziren Ibarraundi baserria zaharberri-zeko lanak egiten. Bi alditan egingo dira lanok; batetik, teilatua eta baserri zaharrak premiazkoak dituen egitura lanak egingo ditu Mauricio Arregi enpresa eraikitzaileak. 20 hilabeteko epea dauka Bergarako


enpresak lanak amaitzeko. Bigarren ekitaldian, berriz, elektrizitatea, iturgintza, igeltserotza eta beste izango dira egin beharrekoak. Datozen bi ikasturteetan, asmoa, barruko lan horiek Lanbide Eskolako ikasleekin egitea da, baina, oraindik ere, puntu hori guztiz zehazteko dago.

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrira eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274



ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA
943 79 64 91

605 71 66 92 / 629 47 72 70



Eta gainera, zerbitzua etxera!

Aranburuzabala 3
ESKORIATZA

Tel.: 943 71 45 46

Ordutegia: 9:00-13:30 eta 17:00-20:00

Herriko umeak, pozik eta hurrengo udalekuak noiz helduko zain

AINTZANE GARDOKI

Herriko 25 umeak hartu dute parte GURELek antolatutako udalekuan. Hiru talde egon dira: txikien taldea, hiru eta bost urte arteko 13 umerekin; ertainen taldean bost eta zortzi urte arteko 8 ume izan dira; eta nagusienek, bestalde, tenisaren igerilekua ikasi dute.

Uztailaren 8an hasi eta 19ra bitartean era guztietako ekintzak egiteko aukera izan dute herriko umeek. Txikien herrian bertan izan dira, gehienbat; ertainen taldeak irteera batzuk egin ditu, Landara eta Otxandiora, besteak beste. Gau bat Gaztainuzketan ere pasatu dute eta "hori izan da egin dugun onena", esan digute Ikerrek eta Haizeak. Nagusiak, berriaz, Tenis ikastaroa egin dute Aretxabaletan.

Rosa Sánchez izan da txikien taldeko arduraduna eta GURELeko kide bat -ama bat, hain justu- izan du laguntzaile. Bien artean egin dituzten ekintzekin umeek oso ondo pasatu dute: entzierroa, Sorginaren Eguna, herri kirolak, gimnasia eta Aerobik Eguna, Loreen Eguna, eta herria piratekin bete zen eguna ere izan da azkeneko bi asteotan herrian. Pena apur batekin ere gelditu dira, dena dela: "Igerilekura behin bakarrik joan gara..."

Txikien herrian egin dituzte ekintza ia guztiak. Igerilekura behin bakarrik joan dira

Ertainen taldearen ustez, Gaztainuzketan pasatutako gaua izan da onena



Artista lan ugari izan dira azkeneko bi asteotan herrian.



Sei-zortzi urte bitarteko zortzikoteak otxandior bi izan dituzte laguntzaile.



Azkeneko egunean, azkenean, igerilekua zapaltzeko aukera izan zuten txikienek.

ALAZNE UNZALU ETA AINHOA LASUEN / BEGIRALEAK


"Errepikatze modukoa"

Alazne eta Ainhoa otxandiarrek dira eta badute eskarmentua umeen aisialdian. Gatzagako umeekin 15 egun pasatu dituzte eta, orokorrean, esperientzia errepikatze modukoa izan dela esan digute.

Nolatan otxandiar bi Gatzagan begirale?

Gatzagan udalekuak egiteko begirale bila ari zirela-eta, programa bat aurkeztu genuen, eta hemen pasatu dugu uztaile.

Pozik ibili dira umeak? Eta zuek?



Baiezkoan gaude. Hasieran, bakoitzari neurria hartzea ez zen erraza izan, baina ondo moldatu gara. Gainera, aste bi laburregi gelditu direlakoan gaude, bai guretako eta bai umeendako ere.

Zer eskatzen dute gehien umeek?

Kirolak eta eskulanak, esate



baterako gura beste izan ditugu, baina umeendako, ura da erakargarriena. Eguraldiak askorik ez lagundu arren, Landara eta Otxandio igerilekura joan gara. Nahiz eta hotz egin, umeek uretan orduak emango lituzkete. Arrakasta handien, dena dela, Gaztainuzketan igarotako gauak izan du.

ALZA

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29/ Eskoriatza 20540

Santa Ana
GOZOTEGIA



Santa Ana 7
ESKORIATZA
Tel. 943 71 52 36

AZKOAGA
ESTANKOA

Zure
Zerbitzura



MIRENTXU
TABERNA

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

ESKORIATZA **Bazkariak eta afariak**
ERRETEGIA
Tfno 714345
MENDIOLA
Menduiola auzoa
ESKORATZA
943 71 43 45
Astelehenetan itxita

JOSU
taberna harategia
Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak
Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08



LAGUNAK
DASTALEKU
Tlf. 943714063
Gustora egoteko!
Intxaurtxueta 8. ESKORIATZA



ARTANO akaitegia
Gosariak goizeko 7:00etatik aurrera!
Herriko plaza 3. Tel.: 943 79 62 75 ARETXABALETA



URBALTZ
TABERNA
Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA



ZARAIA
TABERNA
Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan
MANTEKA ANAIK
Araba Ibilbidea 20. Tel.: 943 79 88 95. Aretxabaleta

HIRUSTA JATETXEA
Zatoz gure sukaldea ezagutzera
Ilargi plaza 4. Tel. : 943 79 06 57



Baster-Alde jatetxea
Sasoiko jakiak giro onenean
Galartza auzoa, Aretxabaleta
943 79 24 58



EZKUTU
TABERNA
Zatoz gure musikaz gozatzera
Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01



IZOTZ
Taberna
Mitarte, 16
Tel.: 79 73 65
ARETXABALETA

ARLUTZ
TABERNA
Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34



OTZETA
taberna jatetxea
Aranburuzabala 7
ESKORIATZA. 943 71 51 90



Dorleta
taberna
Bezeroen zerbitzura
Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel.943 79 94 15

BASABE
Menuak eta afariak
Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84




Aretz
taberna
ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera
Markole, 5 behea
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA



ABUZTUAK 14,15,16 eta 17

ANDRAMAIXAK 2002



ARETXABALETIA

Aretxabaletako Udalak Andramaixa zorientsuak
opa dizkizue aretxabaletar guztioi.



ARETXABALETAKO
UDALA